MEMORIA

Idiazabalgo Udal herriko haibat kaleren asfaltatzea.

2025eko uztaila

ESKU7416d7fd-2e5c-44fa-8948-b9dab27271a4

Idiazabalgo Udala

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. BETE BEHARREKO PREMIAK
3. PROZEDURAREN HAUTAKETA
4. KAUDIMEN-IRIZPIDEAK
5. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
6. INDARRALDIA ETA GAUZATZEKO EPEA. BERMEA
7. KONTRATUAREN LOTEAK
8. AZPIKONTRATAZIOA EZ MUGATZEKO ERABAKIA
9. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
10. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
11. ZIGORRAK

ESKU7416d7fd-2e5c-44fa-8948-b9dab27271a4

Idiazabalgo Udala

XEDEA

Kontratu honen xedea Idiazabalgo Udal herriko hainbat kaleren asfatatze lanak burutzeko da.

BETE BEHARREKO PREMIAK

Gaur egun, Idiazabalgo herriko zenbait errepideen egoera ez da egokia eta konponketa baten beharra dute, hain zuzen ere hiru eremu hauetan: Guardi industriagunean, Landa barreiatua 109 ingurutik (Otezabal baserria) Antti baserriaren artean (Landa barreiatua 79) eta Zepai 12 pareko eremua.

Ildo horretan, ibilgailuak ibiltzen diren errepidearen egoera ona bermatzeko, asfaltatze lanak behar dituztela ikusirik, txosten hau egiten da dagokion kontratazio-espedientea izapidetzeko.

Gaur egun udaleko langilerik ez dagoenez lan hori egiteko, beharrezkoa da kanpoko zerbitzu bat kontratatzea.

PROZEDURA AUKERATZEA

Kontratu hau prozedura ireki supersinplifikatuaren bidez esleituko da (SPKL, 159. 6 art.), balio zenbatetsia 80.000 eurotik beherakoa delako eta balio-judizioari lotutako irizpidererik ez dago, irizpidea guztiak formulaz kalkulagarriak dira.

KAUDIMEN-IRIZPIDEAK

Eskatutako kaudimen-irizpideak kontratuaren objektuarekiko proportzionalak dira, eta lehia askea bermatzen dute.
Kasu horretan, enpresa lizitatzaileek kaudimen teknikoa eta/edo profesionala egiaztatu beharko dute, eta azken hiru urteetan kontratuaren xedearen izaera bereko bost kontratu egin dituztela egiaztatu beharko dute (lanak edo zerbitzuak izaera berekoak edo antzekoak direla zehazteko, LCPSren 90. artikulua, lehenengo hiru CPV kodeen arabera).

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA / KONTRATUAREN/LIZITAZIOAREN PREZIOA

ESKU7416d7fd-2e5c-44fa-8948-b9dab27271a4

Idiazabalgo Udala

Idiazabalgo Udal herriko hainbat kaleren asfaltatzeko lanak obraren aurrekontua, gehienez ere, honako hau izango da (BEZa barne, % 21):

Hogeita hiru mila laurehun eta laurogeita hamazazpi euro eta hamalau zentimo BEZa barne (83.947,14 €).

Gastu horri aurre egiteko saldo nahikoa duen partidad daude; zehatzago, **601.05.153.40 2025 / 227.99.454.00 2025 / 2025.99.151.02 2025** partidetan.

INDARRALDIA ETA GAUZATZEKO EPEA. BERMEA

Kontratua gauzatzeko epea 2 astekoa da,.

Bermarik ez dago lizitazio honetan.

KONTRATUAREN LOTEAK

Ez dira jotzen justifikatutako kontratuaren lotetan banatzea, asfaltatu behar diren hiru eremutik bin azalera oso txikia da, eta hori ekonomikoki bideraezina litzateke, betara materiala, makineria eta langileak eramatea.

AZPIKONTRATAZIOA EZ MUGATZEKO ERABAKIA

SPKLren 215. artikuluak ezartzen du kontratistak hirugarrenekin hitzartu dezakeela prestazioaren zati bat egitea, baldintza-agirietan xedatutakoari jarraikiz. Beraz, azpikontratatzeko aukera ohiko aukera da, eta ezin bada erabaki hori hartu, arrazoitu egin beharko da. Oraingo honetan, arau orokor horri jarraitu behar zaio, eta azpikontratazioa onartzen da.

KONTRATUA ESLEITZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak honako premisa hauen arabera aukeratu dira, eta kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza egiten duen enpresaburuari kontratua esleitzeko:

Formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpidetzat hartuko dira, eta horien artean eskaintza ekonomikoak 90 puntu lortu ahal izango ditu gehienez. Bestalde, 10 puntura arte baloratuko dira honako hauek:

.- Instalazioen bermearen luzapena: 10 puntu

2,5 puntu esleituko dira urtebeteko berme luzapenagatik.

ESKU7416d7fd-2e5c-44fa-8948-b9dab27271a4

Epea urteetan adieraziko da eta gehienez 4 urte hartuko dira kontutan.

Hautaketa-irizpideak aukeratzeko arrazoiak honako hauek dira:

- Eskaintza ekonomikoa: Administrazioak aurrekontu-egonkortasunaren eta gastu-kontrolaren arloan duen helburuaren aurrean ezartzen da. Baldintza-agiriek ezartzen dute nola gauzatu behar den, eta, beraz, aurreikusten da obraren egikaritzapenean kalitate ona bermatzea.

  Formula proportzional bat ezarri da lizitatzaileen arteko berdintasuna bermatzeko. Aurreikusitako formularen bidez lortuko den puntuazioa lizitazio-tasarekiko baxuena zein izango den, horren araberakoa izango da. Eskaintzak egiteko unean, enpresek ezin dute jakin zein izango den bajarik handiena, eta puntuazioa baja maximoaren araberakoa izango denez, baja handiegiak puntuazio guztiak desproportzionatzea saihestu nahi da.

- Berme epea luzatzea: Administrazioari segurtasun handiago ematen dio eta kontratistak erantzukizun handiagoa hartzen du egiten duen lanean.

  Horren guztiaren ondorioz, enpresek honela aurkeztu behar dituzte eskaintzak:

  A gutun-azalean (bakarra dago), enpresaren datuak, ROLECEn izena emanda dagoela egiaztatzen dutenak, Erantzunkizunpeko aitorpena (I ERANSKINA) eta proposamena (II ERANSKINA.

10. BERARIAZKO KONTRATAZIO-BALDINTZAK

SPKLren 202. artikuluak arautzen du kontratazio-organoek baldintza bereziak ezar ditzaketela kontratua egikaritzeko, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusia badu.
Bereziki aipatzen ditu klausula sozialak edo ingurumenekoak, eta, kasu honetan, klausula sozial bat ezartzen da langileen lan-baldintza duinak bermatzeko, azpikontratatuak izan edo ez: faktura aurkeztearekin batera, gizarte segurantzan eta ogasunean zorrik ez dutela egiaztatu behar dute.

Era berean, kontuan hartuta Idiazabalgo Udalak Euskara Plan bat duela, UEMAren parte dena, eta herritar gehienak euskaraz komunikatzen direla,

ESKU7416d7fd-2e5c-44fa-8948-b9dab27271a4

justifikatuta dago enpresa lizitatzaileak Udalarekin dituen komunikazioak euskaraz izatea eta herritarrekin hizkuntza horretan aritzea.

11. ZIGORRAK

SPKLren 192. artikulua eta hurrengoak hartuko dira kontuan.

Idiazabal, 2025eko uztailaren 3a.

EKS | CSV: ESKU7416d7fd-2e5c-44fa-8948-b9dab27271a4
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04310